



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abailduta makurtuta	...arratsaldeko bere betiko lo-kuluxkarako luzatzen ari zela ematen zuen, baina burua abailduta egiten zituen keinu zakarrek seinale zuten ez zegoela lotan.	81
adarra jo trufatu, barre egin	— Ez zaigu adarra jotzen ariko, ezta?	23
adore eman bihotz eman, kemendu	Horrek adore handia eman zion Gregorri...	25
agerian bistan, aurrean	...hura zabal-zabal egonda ere, Gregor ez zegoen agerian .	26
agortu amaitu, ahitu, bukatu	...baina beldur zen biratzen galdutako denborarekin aitari pazientzia agortuko ote zitzaion...	32
ahal desioa adierazteko, <i>ojalá</i>	— Nik ere ez dut beste azalpenik, andrea [...], ez ahal da ezer larririk izango.	19
aise erraz	Aise lortu zuen...	14
aitaren egin gurutzearen keinua egin	Aitaren egin zuen, eta hiru emakumeek ere beste hainbeste.	88
akidura nekearen nekea	Ama bere besaulkian zegoen, zangoak luzatuta eta bata bestearen kontra, begiak akiduraz erdi itxita...	84
aldian behin noizbehinka	Aldian behin mahaitik altxatu, eta bost urte lehenago hondoa jotako bere negoziotik salbatutako diru-kutxa txikitik ateratzen zuen (...) liburuxkaren bat.	43
alproja fungabea, zabarra	Enplegatu guzti-guztiak ote ziren alprojak , haien artean ez ote zegoen leialik inor...	17
amildu jausi, erori	Orduan amak berriro oihukatu, mahaitik ihes egin, eta harengana korrika joandako aitaren besoetan amildu zen.	31
amultsuki maitekiro, amoroski	— Egun on, Samsa jauna –hots egin zuen arduradunak, amultsuki .	18
anabasa nahasketa, nahasmendua	... anabasa hartan bakea eta ordena jartzeko modurik gabe...	15
ardaila zalaparta, sesioa	...eta Gregor amorrux txistuka ari zen, inori ez zitzaiolako bururatu atea ixtea eta bera ikuskizun eta ardaila hartatik libratzea.	72
are oraindik eta	Berak desagertu beharra zeukan, eta uste hori arrebarena baino are irmoagoa zen, hori posible bazen behintzat.	86
arren mesedez, otoi, faborez	— Gregor, zabaldu atea, arren .	12
arrenka mesedez, mesedez...!!! eskatzea	...askoz zentzuzkoagoa irudituko zitzaiokeen bera bakean uztea, negarrez eta arrenka estutu gabe.	20
arrotz ezezaguna	...berehala atea berriro zabaldu eta oin-puntetan sartu zen, larri gaixo dagoen norbaitengana edo arrotz batengana balihoa bezala.	39
artesi arraildura, bitartea	...besteetako ile zuri, banatuta xuxen-xuxen zegoen orraztuta, artesi zehatz, distiratsu bat eta guzti.	60
asaldura aztoramena, haserrealdia	...hots egin zuen Gregorrek bere onetik aterata eta beste guztiaz ahazturik, asaldurarekin ...	21
ase bete	Benetan, bazirudien biolin-saio eder edo entretenigarri bat entzuteko usteak huts egin ziela, emanaldiaz ase zirela...	78
astiro poliki, emeki	Sei eta erdiak ziren eta orratza aurrera zihoan astiro ...	10
atxiki oratu, eutsi	Baina Gregor gai zen aurreikusteko. Arduraduna atxiki , lasaitu, konbentzitu eta, azkenik, irabazi beharra zegoen...	29
aurreikusi kalkulatu	Baina Gregor gai zen aurreikusteko . Arduraduna atxiki, lasaitu, konbentzitu eta, azkenik, irabazi beharra zegoen...	29



azpil erretilua, <i>bandeja</i>	Segituan azaldu zen artean ama, azpil bat haragirekin, eta atzetik arreba, azpil bete patatekin.	75
baino baizik	Inolako zalantzarik gabe, ahots-aldaketa hura ez zen burutik beherako txar baten seinalea baino , saltzaile bidaiarien ohiko gaitza.	13
balihoa joango balitz	...berehala atea berriro zabaldu eta oin-puntetan sartu zen, larri gaixo dagoen norbaitengana edo arrotz batengana balihoa bezala.	39
bapo ederki, ezin hobeki	Badakit saltzaile bidaiaria ez dela inoren gogokoa. Barra-barra irabazi eta bapo bizi dela uste da.	28
barau jan gabe	Bere planak porrot egin izanaren desilusioarengatik, baina agian barau luzeak eragindako ahuldadearengatik ere bai, ezin zen mugitu.	81
barra-barra ugari, oparo	Badakit saltzaile bidaiaria ez dela inoren gogokoa. Barra-barra irabazi eta bapo bizi dela uste da.	28
bart joan den gaua, pasatu den gaua	Bart gauean primeran nengoen...	22
begitandu iruditu	Antza, aitari Gregor uxatzea baino lehenagokoa begitandu zitzaion maizterrak baretzea...	79
bekozko ilun amorraturik, haserre aurpegia	Aitak bekozko ilunez estutu zuen ukabila –Gregor berriro bere gelara bultzatu nahian bezala...	26
berbetan hitz egiten, hizketan	Gregor berbetan ari zela, arduraduna ez zen une batez ere geldirik egon.	29
bere onetik aterata amorratuta, sutan jarrita	...hots egin zuen Gregorrek bere onetik aterata eta beste guztiaz ahazturik, asaldurarekin...	21
berekiko esan bere kautan, bere barnerako	“Arrazoi galanta”, esan zuen aitak berekiko .	82
bermatu apoiatu	Emakumeak ondoko gelan idazmahaiian bermaturik zeudela...	56
bider aldiz	...hark azkeneko bider begiratu zuen atzera...	31
bizkar txalkor bizkar hanpatua, puztua	Bi lagun indartsu [...] aski izango ziren; haiek beso bana bizkar txalkorraren azpian sartu, ohetik aterarazi...	16
burrundara zaratotsa, zalaparta	...bizkarra ere Gregorrek uste baino malguagoa zen, eta burrundara ez zen hain nabarmena izan.	17
burutik beherako hotzeria, <i>resfriado</i>	Inolako zalantzarik gabe, ahots aldaketa hura ez zen burutik beherako txar baten seinalea baino, saltzaile bidaiarien ohiko gaitza.	13
ebaki ahoskatu	Bazirudien barru-barruko txilio mingarri eutsiezin bat zuela nahasita, hitzak hasieran argi ebaki bai, baina haien oihartzuna okertu egiten zela...	11
egoskor setatia, burugogorra	...guk ezingo genion atea irekiarazi; egoskor hutsa da...	19
emeki eztiki, leunki	Alboko beste atetik kexatu zen arreba, emeki ...	12
enbarazu traba, oztopoa	Hasteko, lasai eta enbarazurik gabe jaiki nahi zuen, jantzi eta, batez ere, gosalduta.	13
errieta agiraka, haserre, <i>bronka</i>	Eta, trena hartuta ere, ez zen libratuko ugazabaren errietatik , ez zela azaldu esana izango baitzion bulegoko laguntzaileak...	10
errukarri gizajoa, urrikalgarría, koitadua	“Utzidazue Gregorregana sartzen! Seme errukarria ! Ez zarete jabetzen berarengana joan behar dudala?”	50
esnatu atzarri, itzartu	Baina urrats sendo batzuek eta sarrerara zeraman atea kontuz ixtearen hotsak esnatu zutela iruditu zitzaion.	35
eutsiezin kontrolaezina, geldiezia	Bazirudien barru-barruko txilio mingarri eutsiezin bat zuela nahasita, hitzak hasieran argi ebaki bai, baina haien oihartzuna okertu egiten zela...	11




ezti maitagarria, leuna	Bai ahots eztia!	11
funsgabe arduragabea, fundamentu bakoa	...zurrumuru, kasualitate eta kexa funsgabeen biktima erraza izan daiteke, bere burua inola ere babestu ezin duela...	28
gaitz gaixotasuna, ondoeza	Inolako zalantzarik gabe, ahots-aldaketa hura ez zen burutik beherako txar baten seinalea baino, saltzaile bidaiariaren ohiko gaitza .	13
galant handia, itzela	“Arrazoi galanta ”, esan zuen aitak berekiko.	82
galarazi trabatu, oztopatu	—Bai —erantzun zuen garbitzaileak, barre jator batek hizketan jarraitzea galarazten ziola...	91
ganorazko egokia, ona, zuzena	Pixkanaka isilduz eta begiraden bidez ia ohartzeke adostu zuten alabari ganorazko gizaseme bat bilatzeko ordua zela.	93
garratz latza, gogorra	...eta nabaritu zuen, min garratzak erakusten zionez, gorputzaren beheko alde huraxe zuela une hartan sentikorrena, agian.	14
gatibu egon preso egon	Aitaren azalpen haiek izan ziren, hein batean, Gregor gatibu zegoenetik entzundako lehen albiste pozgarriak.	44
gauza izan gai izan, kapaz izan	...eskuineko aldearen gainean lo egiten baitzegoen ohituta eta, egoera hartan, ez zen gauza .	8
gero bai horixe, alafede	Bitxia da, gero , mahaian eserita egon eta han goitik hitz egitea langileei	9
goraipatu laudorioak egin, goretsi	Lehenbiziko bi asteetan, gurasoak ez ziren Gregorregana sartzeko gai izan, eta sarri entzuten zien arrebaren lan berria goraipatzen ...	50
gordin gogorra, zakarra	Baina galdera haren erantzun gordin moduan eman zituen arduradunak pauso batzuk alboko gelan...	18
guritu gizendu, loditu	Baina borondate handia behar izan zuen sofaren azpian egoteko (...), janaldi oparo hark guritu egin baitzion gorputza pixka bat...	41
har desira, kilika / jakin-mina	...haien artean ez ote zegoen leialik inor, goizeko ordu pare bat lanari ez eskaintzearen harrak zoratzen zuenik eta ohetik ateratzeko gai ez zenik?	17
hasperenka arnasestuka	Baina beste hainbeste ahalegindu ondoren lehen bezala jarri zenean, hasperenka , eta bere zangoan lehen baino are sutuago ikusi zituenean...	14
higuin nazka, nardoa	...eta familiaren eginbeharra zela higuina irenstea eta pazientzia izatea, pazientzia baino ez.	65
hilotz gorpua, hildakoa	Hala ere, sartu eta Gregorren hilotzaren inguruan geratu ziren, eskuak jaka maiztu samarren sakeletan, jadanik erabat argitutako gelan.	89
hondoa jo hondoratu, hondatu	Aldian behin mahaitik altxatu, eta bost urte lehenago hondoa jotako bere negoziotik salbatutako diru-kutxa txikitik ateratzen zuen (...) liburuxkaren bat.	43
huts egin kale egin	Benetan, bazirudien biolin-saio eder edo entretenigarri bat entzuteko usteak huts egin ziela, emanaldiaz ase zirela...	78
igarri antzman, ezagutu	Zurezko ate harekin ezin zitzaion igarri Gregorren ahots aldatuari...	12
intziri egin zinkurin egin, kexu soinua	Baina galdera haren erantzun gordin moduan eman zituen arduradunak pauso batzuk alboko gelan, bere txarolezko zapatekin intziri eginez .	18
irainduarena egin laidotu izanaren plantak egin	Nahita zegoela geldi-geldi pentsatu zuen, irainduarena eginez , zentzu osoaren jabe zela irizten zion.	86
iraungaitz iragankorra, pasakorra	...otordu txar, gorabeheratsuak, jendearekiko harreman beti aldakorra, iraungaitza , inoiz sakontzen ez dena.	9
irmo sendoa, fermua	Berak desagertu beharra zeukan, eta uste hori arrebarena baino are irmoagoa zen, hori posible bazen behintzat.	86
jaregin askatu, libratu	Alboko besaulki baten bizkarraren kontra jaregin zuen bere burua, bere zangoekin haren ertzei eusten ziela.	23



jasangarri pairagarria, eramangarria	...eta pazientzia eta begirune handiaren bidez lortu behar zuen bere oraingo egoera jasangarria izatea familiarentzat.	38
jaulki (ahotik) irten, (ahotik) bota	Eta Gregorrek hori dena jaulki bitartean, zer zioen ez zekiela...	22
jausi erori	—Zerbait jausi da hor barruan...	18
jazarri atzetik jarraitu (harrapatzeko)	Piztia honek, baina, jazarri egiten gaitu...	84
kale egin huts egin	...une hartan, ikusmenak kale egin zion Gregorri...	63
kamuts laburra, artaburua, lerdoa	...aspaldi ez eta berriro gogora etorri zitzaizkion ugazaba eta arduraduna, bulegariak eta apendizak, morroi kamuts hura...	70
kaskar erdipurdikoa, eskasa, txarra	Hala, gogotsu hasi zen lanean, eta ia egun batetik bestera igaro zen bulegari kaskarra izatetik saltzaile bidaiari izatera...	44
kemen adorea, indarra, kuraia	Buruzagiaren morroi bat zen, kemenik eta zentzurik gabekoa.	10
kirik egin zelatatu	Ordutik aurrera, ez zuen huts egiten goizero eta arratsaldero atea zirrikitu eta Gregorri kirik egin gabe.	72
konbentzitu limurtu	Baina Gregor gai zen aurreikusteko. Arduraduna atxiki, lasaitu, konbentzitu eta, azkenik, irabazi beharra zegoen...	29
konkor handitua, kozkorra	...eta burua pixka bat jasoz ikusi zuen bere sabel konkor marroia, uztai formako gogortasunarekin...	7
labaindu irristatu	Lehenbiziko ahaleginetan, komoda leunetik behera labaindu zen...	23
laino (egon) behelainoa, lainobera	"Zazpiak dira eta! –esan zuen berekiko, ordulariak berriro jotzean–. Zazpiak eta oraindik laino!	15
likits zikina, lohia	Hasieran, arrebaren zetorreanean, txokorik likitsenetako batean jartzen zen Gregor, modu hartan utzikeria leporatuz bezala.	71
loratu koskortu, hazi, handi egin	...beren alaba [...] neskaitila eder eta mardul bat izateraino loratu zen.	93
maizter inkilinoa	Antza, aitari Gregor uxatzea baino lehenagokoa begitandu zitzaion maizterrak baretzea...	79
maiztu higatu, hondatu	Hala ere, sartu eta Gregorren hilotzaren inguruan geratu ziren, eskuak jaka maiztu samarren sakeletan, jadanik erabat argitutako gelan.	89
mardul gizena, betea, lodia	...zurrunaren gainean nabarmentzen zitzaion papo mardula ...	60
marruskatu igurtzi, torratu	...emakumeen joan-etorri hura, haien dei txikiak, altzariak lurraren kontra egindako marruskatzeak eraso handi (...) baten modukoak iruditu zitzaizkion.	55
mesfidantza fidagaiztasuna, sinesgaiztasuna	Arrazoirik gabekoa suertatu zen mesfidantza batez, Samsa jauna eskailera-burura irten zen bi emakumeekin...	90
miazka milikatu, txupatu	...pentsatu zuen, gaztari grinaz miazka , hark beste janariak baino gehiago erakarri baitzuen.	40
minсор min iraunkor eta ez oso handia	Lehenago ere sarritan nabaritu izan zuen minсор bat ohean, agian gaizki etzanda egoteagatik...	13
muzin egin errefusatu, arbuia	Ez ezer kendu, utzi dena bertan, ezin zion muzin egin altzariak bere egoeran zuten eragin onari...	54
nagi alferra, geldoa	Ugazaba aseguru medikuarekin etorri, gurasoei seme nagia zutela aurpegiratu, eta erreklamazio guztiak bertan behera utziko zituen...	11
nahigabetu malenkoniatu, atsekabetu	...horma hutsik ikusteak bihotza nahigabetu zion...	53



narrasean herrestan, arrastaka	...beldurra eman zion hala narrasean jarraitzeak, gorputzari erortzen uzten bazion miraria izango baitzen burua ez zauritzea.	14
nonbait antza, itxuraz, dirudienez	Tira, ez zuen lo lasaia izan, baina sakona bai, nonbait .	10
oinaze mina	...ez zituen aintzat hartzen gorputzaren beheko aldeko oinaze latzak.	23
olgeta jolasaldia, jostaketa	...apain jantzi, berandu arte lo egin, etxean lagundu, olgeta xume pare batean parte hartu eta, batez ere, biolina jo.	47
ondoez pattalaldia, aldixarra	Jaiki ezinik utzi nau ondoez arin batek, zorabio batek.	21
orbain ebakiondoa, zauri sendatu marka	Ezkerralde osoak orbain luze tenkatu bat zirudien...	35
orban zikinunea	...ate zurian orban zatarrak geratu ziren...	34
ozta-ozta doi-doi, justu-justu, nekez	Ozta-ozta bere gelan sartu orduko, atea bultzatu, kisketari eman eta giltzaz itxi zuten.	85
petral liskartia, aharraria	...galdetu zion erdiko maizterrak garbitzaileari, petral .	89
pitin bat apur bat, pixka bat	...eta egindako ahaleginarengatik atsedean hartu zuen pitin batean .	25
premia izan behar larria izan	...norbaitek barrura sartzeko premia izan zuen, baina hobeto pentsatu zuen.	37
saiheska trabesean, bihurtuta	Gorputzaren erdia bakarrik ikusten zitzaion, eta burua saiheska zuela ari zen besteei zelata egiten.	27
sarri askotan, maiz, usu	Lehenbiziko bi asteetan, gurasoak ez ziren Gregorregana sartzeko gai izan, eta sarri entzuten zien arrebaren lan berria goraipatzen...	50
suspertu bizkortu, indarberritu, bizitu	Zortzietako trena hartuko dut, bi orduko lasaitasun honek suspertu egin nau.	22
sutsu kartsua, suharra	...eta bere zangoak lehen baino are sutsuago ikusi zituenean elkarren kontra borrokan...	14
taxuz ganoraz, egokiro	Hamarrak jo orduko, ama goxo-goxo hitz eginez saiatzen zen aita esnatzen eta ohera joanarazten, besaulkian ezin baitzuen taxuz lo egin...	67
tema seta, kasketaldia	Zure tema ulertezina ikusirik, baina, ez dut inolako gogorik hitz-erdi bat ere zure alde egiteko.	21
tenkatu zurrundu, tentsioan ipinia	Ezkerralde osoak orbain luze tenkatu bat zirudien...	35
txilio oihua, garrasia, ulua	Bazirudien barru-barruko txilio mingarri eutsiezin bat zuela nahasita, hitzak hasieran argi ebaki bai, baina haien oihartzuna okertu egiten zela...	11
txutxu-mutxuka marmarka, murmurika	Agian gurasoak arduradunarekin eserita zeuden mahaian, txutxu-mutxuka ...	24
ugazaba nagusia, patroia	Eta, trena hartuta ere, ez zen libratuko ugazabaren errietatik, ez zela azaldu esana izango baitzion bulegoko laguntzaileak...	10
urrats pausoa, oinkada	Baina urrats sendo batzuek eta sarrerara zeraman atea kontuz ixtearen hotsak esnatu zutela iruditu zitzaion.	35
uxatu aienatu, ohildu, urrunarazi	...eskuaz aho irekia zapaldu eta astiro atzera egiten ikusi zuen, indar ikusezin jarraitu batek uxatuta bezala.	26
xahutu gastatu, eralgi, irion	Gainera, Gregorrek hilero etxera ekarritako dirua (...) ez zen guztiz xahutu , eta kapital txiki bat zegoen bilduta.	46
xalo apala, xumea	Gurasoek ez zituzten entzun ere egin nahi izaten aipamen xalo haiek...	45



xaxatu zirikatu, akuilatu	...hura bai harritu, inork xaxatu ez arren batera eta bestera korrika...	72
xelebre bitxia / txistosoa, gatzduna	Ez zen harritu, eta xelebrea iruditu zitzaion ordura arte zango mehe haien gainean ibili ahal izana.	86
xuxurlatu ahapeka esan, isilka	Aita gosaritarara itzuli zen, baina arrebak xuxurlatu zuen: —Gregor, zabaldu atea, arren.	12
zakar desatsegina, latza	...arratsaldeko bere betiko lo-kuluxkarako luzatzen ari zela ematen zuen, baina burua abailduta egiten zituen keinu zakarrek seinale zuten ez zegoela lotan.	81
zalaparta astrapala, iskanbila	Zalaparta harekin izutzen zuen Gregor egunean bitan...	48
zapal laua, aplastatua bezala	Izan ere, Gregorren gorputza erabat lehorra eta zapala zegoen...	88
zartako zartada, kolpea	Zartako baten hotsa egon zen, baina zarata handirik ez.	17
zelata egin barrandatu, espiatu	Gorputzaren erdia bakarrik ikusten zitzaion, eta burua saiheska zuela ari zen besteei zelata egiten .	27
zerraldo egon hilik bezala	Gregor laneko bidaia batetik itzultzean, ohean neka-neka eginda zerraldo egoten zen...	60
zirkin mugimendutxo	...esan zuen Gregorrek astiro eta pentsakor, zirkinik egin gabe, solasaldiaren hitzik ere ez galtzeko.	19
zirrara bihotz-ikara, dardara, pilpira	Bitartean, arrebak gaintitu egin zuen saioa bat-batean eten izanaren zirrara .	80
zirrin-zarran tatarras, oinak arrastaka bezala	...amak azalpen hura ontzat jo eta zirrin-zarran joan baitzen.	12
zitalkeria gaiztakeria, petralkeria	Horregatik, Gregorrek lurrean jarraitzen zuen, hormetara edo sabaira ihes eginez gero aitak zitalkeriatzat hartuko zuen beldurrez.	61
zorian -tzeke unean, -tzear	...eta oinaze guztiak behingoz hobetzeko zorian zeudela pentsatu zuen.	30
zurbil zuri-zuria, kolorgea	Tranbia elektrikoaren distira zurbilak ageri ziren han-hemenka...	35